

Ariketa hauek Ikasbileko 1856566 atazan aurkituko dituzu.

1- Entzun aurretik

1.1 Gaztetan bai?



Adinean aurrera egin ahala, jende askorentzat gaztetan dibertitzeko egiten zituen zenbait gauza ez dira dagoeneko horren dibertigarriak izaten. Baina, badira 40 urtetik gorako *beti-gazteak*, gaztetako ohiturei fin-fin jarraitzen dietenak ere. Zu zein taldetakoa zara?

Aztertu gaztetxoei egotzi ohi zaizkien ohitura hauek eta adierazi zeintzuk egiten zenituen lehen, eta orain, urteak igarota, egiten ez dituzunak.



| | Gaztetan | Orain ez |
|---|--------------------------|--------------------------|
| • <i>Goizaldera arte kalean ibili (gaupasak egin)</i> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| • <i>Musika-talde gustukoaren kontzertuetan eszenatokiaren aurrean saltoka jardun</i> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| • <i>Motxilatxoa hartuta asteburua abentura bila atera</i> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| • <i>Orduak eman lagunekin bideojokoetan</i> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| • <i>Festaz festa Euskal Herria ezagutu</i> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| • <i>Koadrilarekin astebururo parrandan ibili</i> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| • <i>“Botiloia” egin herriko parkean</i> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| • <i>Diskoteka eta pubetan dena emanda dantzari aritu</i> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| • <i>Garajeetan edo lokalean festak antolatu</i> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| • <i>Neskatan / mutiletan egin</i> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| • <i>Herriko jaietan goitibeheran ibili</i> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| • <i>Besterik:</i> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |



1.2 Orain zer?



Ikasgelako mintza-saioan, dibertitzeko garaian adinaren garrantziaz hitz egingo duzue. Zure jarduna prestatzeko, saia zaitetz ahalik eta ideia gehien biltzen bi galdera hauen inguruan:

- Zein arrazoi dituzu orain ez egiteko gaztetan egiten zenituen gauzak?

-
-
-
-

- Zure dibertitzeko erak aldatu badira, nola ordezkutzen dituzu gazteagoa zinenekoak?

-
-
-
-

1.3 Mezuak

Joneri arraro egin zaio Jonek bere mezuak ez erantzutea. Entzun elkarrizketaren **lehen zatia** eta idatzi Jonek azaldu dion arrazoia.

.....

Zertan ibili ote zen Jon bart gauean? Egin hipotesiak eta komentatu zure lagunarekin.

Jaso hemen zure hipotesiak oinarritzeko entzun dituzun pistak:



-
-
-

2- Entzun bitartean

2.1 Jonen gau mugitua

Entzun elkarrizketaren **bigarren zatia** eta jaso Jonek gaua zertan eman duen. Horrelako zerbait izango zela pentsatzen al zenuen?

Jonek.....pasa du gaua


2.2 Adinak badu garrantzia

Bi lagunek iritzi desberdinak dituzte euren adineko jendea gauez parrandan ibiltzeari buruz. Irakurri baieztapenak eta adierazi egia ala gezurra diren. Ondoren alderatu erantzunak zure ikaskidearekin.

| | Egia | Gezurra |
|--|--------------------------|--------------------------|
| 1. Joneren ustez, Jon zaharregia da kontzertuetara joateko. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 2. Jonek pentsatzen du Jone adinarekin atsotu eta aspergarri bihurtu dela. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 3. Joneren ustez, gauak gain baloratuta daude eta bera ez omen da irteten alferkeriagatik eta aspertu egiten delako. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 4. Joneri parrandan kontrola galtzen duen jende asko dagoela iruditzen zaio. Horregatik, berak kontrolpean eduki nahi izaten ditu horrelako egoerak. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 5. Gauez parrandan ibiltzen direnek heldutasun eza erakusten omen dute Joneren ustez. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 6. Joneri oso dibertigarria iruditzen zaio tabernetan bera baino askoz gazteagoa den jendearekin ibiltzea. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 7. Joneren dibertitzeko erak lehengo aldian okerrera egin duela dio Jonek. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |
| 8. Munduan kontrola galtzen duen jendea egon beharra dagoela iruditzen zaio Joni. | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> |


3. ENTZUN ONDOREN

3.1 Dibertitzeko erak

 Ikasgelakoen dibertitzeko erak nola aldatu diren aztertuko duzue; eta denon artean, esandakoa laburbiltzeko ideia pare bat adostuko dituzue.



Prozedura:

1. Ikaskidearekin elkartu eta kontatu elkarri  ariketan idatzitakoa
2. Zein da zuen konklusioa? Partekatu duzuen laburbiltzen duen ideia jaso
3. Taldean komentatu eta ideia pare bat jaso ondorio gisa



Adibide hau lagungarria izan daiteke zure ideien berri emateko:

“Gaztetan gauez kalera irten eta taberna guztiak itxitakoan, etxepeko kafetegia ireki arte gelditzen nintzen kalean. Bapo gosaldu arte ez nintzen sekula joaten etxera. Orain, berriz, zerbait hartzera ateratzen naizenean, tabernetako giroan lekuz kanpo nagoela iruditu eta alde egiteko gogoia etortzen zait. Inoiz ateratzen banaiz, afaltzera joateko izaten da eta goizeko ordu bietarako, asko jota, etxean izaten naiz...”